Gipuzkoako Foru Aldundia
Ogasun eta Finantza Departamentua

Diputación Foral de Gipuzkoa
Departamento de Hacienda y Finanzas

# Aurretiazko genero eraginaren txostena

# Informe de evaluación previa de impacto de género

**Foru Arau proiektua, Gipuzkoako Lurralde Historikoaren 2022ko Kontu Orokorra onartzen duena**

**Proyecto de Norma Foral por la que se aprueba la Cuenta General del Territorio Histórico de Gipuzkoa de 2022**

## 1. Sarrera

Txosten honen helburua da 2/2015 Foru Arauak, martxoaren 9koak, emakumeen eta gizonen berdintasunerakoak, bere 27. artikuluan ezartzen duena betetzea. Hain zuzen ere, Gipuzkoako Foru Aldundiaren foru arauen aurreproiektuak zein izaera orokorreko xedapen proiektuak osatu eta izapidetzeko orduan, generoaren eraginaren aldez aurreko ebaluazioa aurkeztu beharko da haiei atxikita.

Genero eraginaren aldez aurretiko ebaluazio txostenak atal hauek eduki beharko ditu:

## 1. Introducción

Este informe tiene como objetivo dar cumplimiento a lo establecido en el artículo 27 de la Norma Foral 2/2015, de 9 de marzo, para la igualdad de mujeres y hombres. Según el mismo, los anteproyectos de Norma Foral y los proyectos de disposiciones de carácter general de la Diputación Foral de Gipuzkoa, en su proceso de elaboración y tramitación, se acompañarán del correspondiente informe de evaluación previa de impacto de género.

Ese informe de evaluación previa del impacto de género deberá de constar de las siguientes partes:

- arau proiektuaren edo izaera orokorreko xedapenaren deskribapen orokorra.

- genero eraginaren aldez aurreko ebaluazioa.

- atzemandako ezberdintasunak ezabatzeko neurriak, baita, egindako genero eraginaren ebaluazioaren arabera, emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna sustatzeko neurriak ere.

- la descripción general del proyecto de norma o de disposición de carácter general.
- la evaluación previa del impacto en función del género.

- las medidas para eliminar las desigualdades identificadas y promover la igualdad de mujeres y hombres en función de la evaluación de impacto de género realizada

## 2. Arau aldaketak

Behin 2022ko aurrekontu ekitaldia amaitu ondoren Batzar Nagusietan aurkeztu behar da Gipuzkoako Lurralde Historikoaren Kontu Orokorra.

Foru arau honen bidez onartutako kontu orokorrak osagai hauek ditu, hala jasotzen baitu 127. artikuluan Gipuzkoako Finantza eta Aurrekontu Araubideari buruzko martxoaren 27ko 4/2007 Foru Arauak: foru sektore publikoa osatzen duten entitateen urteko kontuak; aipatu sektorearen urteko kontu finkatuak; eta, azkenik, aurreko informazioa osatu, zabaldu eta komentatzen duen memoria.

## 2. Modificaciones normativas

Una vez finalizado el ejercicio presupuestario de 2022 procede la presentación en las Juntas Generales de la Cuenta General del Territorio Histórico de Gipuzkoa.

De conformidad con el artículo 127 de la Norma Foral 4/2007, de 27 de marzo, de Régimen Financiero y Presupuestario del Territorio Histórico de Gipuzkoa, el contenido de la Cuenta General que se aprueba con la presente Norma Foral está formado por las cuentas anuales de las entidades integrantes del sector público foral; las cuentas anuales consolidadas del mismo y la memoria que completa, amplía y comenta la información anterior.

Era berean, informazioa ematen du foru sektore publikoaren ekonomia, finantza eta ondare egoeraz, ekitaldiko ekonomia eta ondare emaitzez eta, azkenik, aurrekontuen exekuzio eta likidazioaz.

## 3. Genero eragina

### 3.1 Genero egokitasuna

Proiektu honen helburua da Gipuzkoako Lurralde Historikoaren Kontu Orokorra onartzea. Bertan, aurrekontuen exekuzioari eta likidazioari buruzko informazioa jasotzen da, eta egindakoaren berri ematen da.

Hortaz:

- amaierako talde hartzailearen barruan pertsona fisikoak daude.

- xedapen normatiboak eragina du emakumeek eta gizonek baliabideak eskuratzeko edota kontrolatzeko moduan.

Horrela, ondorioztatzen da egokia dela arau proiektua genero ikuspegitik aztertzea.

Suministra, así mismo, información sobre la situación económico-financiera y patrimonial del sector público foral, sobre los resultados económico-patrimoniales del ejercicio y, finalmente, sobre la ejecución y liquidación de los presupuestos.

## 3. Impacto de género

### 3.1 Pertinencia de género

El objetivo de este proyecto es aprobar la Cuenta General del Territorio Histórico de Gipuzkoa. En la misma, se recoge información sobre la ejecución y liquidación de los presupuestos, y se da cuenta de lo realizado.

Por tanto:

- dentro del grupo destinatario final están las personas físicas.

- la disposición normativa afecta al acceso y/o control de los recursos por parte de las mujeres y los hombres.

Así, se determina que es pertinente el análisis de género del proyecto normativo.

## 3.2 Genero eraginaren balorazioa

Foru arau honen berezitasuna kontuan izanik, ezinezkoa da aipatutako aurretiazko ebaluazioa egitea. Izan ere, Kontu Orokorrak aurrekontuen exekuzioari eta likidazioari buruzko informazioa jasotzen du, egindakoaren berri ematera mugatzen da.

Horregatik ezin da genero eraginaren aldez aurretiko ebaluaziorik egin, ezta bere balizko eragin positibo edo negatiboa neurtu ere. Zentzu berean, ezin dira berdintasunaren aldeko neurri zuzentzaileak sartu, Foru Arau hau egindakoaren berri ematera mugatzen baita.

Aitzitik, aurrekontuak prestatzeko foru mailan ezarri den tresna berriak (EBA) ahalbidetu du Genero Berdintasuneko Planeko politikak gehitzea. Horren bitartez, aurrekontuen exekuzioa genero ikuspegitik lantzeko prozesuaren barruan, aztertzen da berdintasun politiketara zuzendutako zenbatekoen betetze maila.

## 3.2 Valoración del impacto de género

Teniendo en cuenta la particularidad de esta Norma Foral, resulta imposible realizar la evaluación previa mencionada, ya que la Cuenta General recoge información sobre la ejecución y liquidación de los presupuestos y se limita a dar cuenta sobre lo realizado.

Es por ello, que en este caso no es posible realizar una evaluación previa de impacto de género, ni determinar su posible impacto positivo o negativo. Del mismo modo, no es posible introducir medidas correctoras a favor de la igualdad, ya que la presente Norma Foral no hace sino dar cuenta de lo realizado.

Sin embargo, la nueva herramienta implantada a nivel foral para la elaboración de los presupuestos (EBA) ha permitido incorporar las políticas del Plan de Igualdad de Género. Ello permite, dentro del proceso de análisis de la ejecución de los presupuestos desde el punto de vista del género, analizar el grado de cumplimiento del importe destinado a las políticas de igualdad.

Horrela, foru sektore publikoaren urteko kontu bateratuen analisien arabera, kudeaketako aurrekontu propioa 1.276 milioi eurokoa izan zen 2022an. Eta berdintasun politiketara zuzendutakoa 19 milioi euro izan ziren, guztiaren %1,5a.

Así, el análisis de las cuentas anuales consolidadas del sector público foral muestra un presupuesto propio de gestión en 2022 de 1.276 millones de euros. Y el importe destinado a las políticas de igualdad asciende a 19 millones, el 1,5% del total.

2022an guztira exekutatutako gastu propioaren zenbatekoa 1.220 milioi eurokoa izan da, aurrekontuaren %95,6a.

El importe total del gasto propio ejecutado en 2022 ha sido de 1.220 millones de euros, el 95,6% del total presupuestado.

Berdintasun politikei dagokienez, 18 milioi euro exekutatu dira, aurrekontuan ezarritakoaren %92a.

En lo relativo a las políticas de igualdad, se han ejecutado 18 millones de euros, un 92,0% de lo presupuestado.

Ondoren datorren taulan ikusi daiteke Foru Aldundiko departamentu bakoitzaren programen zerrenda osoa, eta baita foru sektore publikoa osatzen duten beste entitateen zerrenda ere. Bakoitzarentzat honakoa zehazten da:

- genero ikuspegitik duen garrantzi maila.
- 2022rako aurreikusitako gastuaren zenbateko osoa.

En el siguiente cuadro se puede observar la relación de todos los programas de cada departamento de la Diputación Foral, así como la relación del resto de entes que conforman el sector público foral. Para cada uno se detalla:

- su grado de importancia en relación a la perspectiva de género.
- el importe total del gasto presupuestado para 2022.

- Genero Berdintasun Planaren barruan aurreikusitako gastu zenbatekoa.
- Genero Berdintasun Planaren barruan aurreikusitako zenbatekoak, aurrekontu osoaren gainean suposatzen duen portzentajea.
- 2022an exekutatutako gastuaren zenbateko osoa.
- Genero Berdintasun Planaren barruan exekutatutako zenbatekoa.
- Genero Berdintasun Planean exekutatutako zenbatekoak, guztira exekutatutakoarekiko suposatzen duen portzentajea.
- zenbateko osotik exekutatu den portzentajea.
- Genero Berdintasun Planaren barruan exekutatutako portzentajea.

- el importe de gasto presupuestado dentro del Plan de Igualdad de Género.
- el porcentaje que supone el importe presupuestado del Plan de Igualdad de género sobre el total del presupuesto.
- el importe total del gasto ejecutado en 2022.
- el importe ejecutado dentro del Plan de Igualdad de Género.
- el porcentaje que supone el importe ejecutado del Plan de Igualdad de Género sobre el total ejecutado.
- el porcentaje ejecutado del total del importe.
- el porcentaje ejecutado relativo al Plan de Igualdad de Género.

Zenbateko horiek programen genero garrantziaren arabera aztertzen baditugu, ikusten da:

- garrantzia handikoetan guztira 587 milioi euro aurreikusi ziren, eta Genero Berdintasun Planaren barruan aurreikusitako gastu zenbatekoa 13 milioi eurokoa izan zen, guztiaren %2,2. Eta zenbateko horretatik 11,6 milioi euro exekutatu dira, %89,7a.

Si analizamos esos mismos importes por el grado de importancia de género de los programas, observamos que:

- en los de relevancia alta de los 587 millones de euros de presupuesto total, el importe de gasto presupuestado dentro del Plan de Igualdad de Género ascendió a 13 millones de euros, el 2,2% del total. Y de ese importe se han ejecutado 11,6 millones de euros, el 89,7%.

| Genero garrantzia / Importancia de género | AURREKONTUA / PRESUPUESTO - 2022 | | | EXEKUZIOA / EJECUCIÓN- 2022 | | | EXEKUZIOA / EJECUCIÓN (%) | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | Zenbatekoa guztira / Importe total | Genero Berdintasun Planaren zenbatekoa / Importe Plan de Igualdad de Género | % | Zenbatekoa guztira / Importe total | Genero Berdintasun Planaren zenbatekoa / Importe Plan de Igualdad de Género | % | Zenbatekoa guztira / Importe total | Genero Berdintasun Planaren zenbatekoa / Importe Plan de Igualdad de Género |
| Handia / Alta | 587.411.623 | 12.902.184 | 2,2 | 563.418.209 | 11.578.738 | 2,1 | 95,9 | 89,7 |
| Ertaina / Media | 144.652.088 | 5.616.401 | 3,9 | 151.444.229 | 5.640.079 | 3,7 | 104,7 | 100,4 |
| Txikia / Baja | 483.973.883 | 646.864 | 0,1 | 455.463.507 | 404.640 | 0,1 | 94,1 | 62,6 |
| Garrantzirik gabe / Sin relevancia | 59.844.253 | 0 | 0,0 | 49.226.056 | 0 | 0,0 | 82,3 | - |
| GUZTIRA / TOTAL | 1.275.881.847 | 19.165.448 | 1,5 | 1.219.552.001 | 17.623.457 | 1,4 | 95,6 | 92,0 |

(*) Zenbatekoak aurrekontu propioari dagozkio; beraz, ez dira kontuan hartzen ez erakundeekiko konpromisoak eta ezta zor publikoa ere

zenbatekoak eurotan / importes en euros

(*) Estos importes hacen referencia al presupuesto propio, por lo que no se tienen en cuenta ni los compromisos institucionales ni la deuda pública

- garrantzia ertainekoetan guztira 145 milioi euro aurreikusi ziren, eta Genero Berdintasun Planaren barruan aurreikusitako gastu zenbatekoa 6 milioi eurokoa izan zen, guztiaren %3,9. Eta zenbateko horretatik, 6 milioi euro exekutatu dira, %100,0a.

- en los de relevancia media de los 145 millones de euros de presupuesto total, el importe de gasto presupuestado dentro del Plan de Igualdad de Género ascendió a 6 millones (3,9%). Y de ese importe se han ejecutado 6 millones de euros, el 100,0%.

- garrantzia txikikoetan guztira 484 milioi euro aurreikusi ziren, eta Genero Berdintasun Planaren barruan aurreikusitako gastu zenbatekoa 0,6 milioi eurokoa izan zen, guztiaren %0,1. Eta zenbateko horretatik 0,4 milioi euro exekutatu dira, %62,6a.

- en los de relevancia baja de los 484 millones de euros de presupuesto total, el importe de gasto presupuestado dentro del Plan de Igualdad de Género ascendió a 0,6 millones de euros, el 0,1% del total. Y de ese importe se han ejecutado 0,4 millones de euros, el 62,6%.

Dena den, txosten honetan egiten den analisia oso mugatua da: programa bakoitzean Genero Berdintasun Planaren barruan zenbat gastatu den aztertzen da, baina horrek ez du balio jakiteko gastu horrek balio izan duen ala ez emakumeen eta gizonen arteko ezberdintasunak murrizteko.

De todas formas, el análisis que se realiza en este informe es muy limitado: se analiza cuanto se ha gastado en cada programa dentro del Plan de Igualdad de Género, pero eso no sirve para conocer si ese gasto ha valido o no para reducir las desigualdades entre mujeres y hombres.

Horretarako, oso egokia izango litzateke ebaluazio eta azterketa kualitatiboa ondoren egitea, horrela ondorioak aterako lirateke aurrekontuaren exekuzioaren genero eraginari buruz. Eta analisi hori egiteko, hobetu egin beharko litzateke aurrekontu programa bakoitzaren informazio bilketa.

Para ello, resultaría muy adecuado realizar una evaluación y análisis cualitativo ex-post, para así obtener conclusiones sobre el impacto de género de la ejecución presupuestaria. Y para realizar ese análisis se debería mejorar en la recogida de información de cada programa presupuestario.

Horren haritik, hobekuntza prozesu bati hasiera eman zaio, aurrekontuen genero eragina aurretiaz ebaluatzeko txostena osatzeko helburuarekin. Prozesu horrek mugarri hauek ditu:

En ese sentido, se ha iniciado un proceso de mejora con el objetivo de completar el informe de evaluación previa del impacto de género de los presupuestos. Ese proceso cuenta con los siguientes hitos:

- Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako III. Planean eta "GFAren lan prozeduretan genero ikuspegia txertatzeko bidean aurrera eginez" helburuaren barruan, horri buruzko berariazko ekintzak sartzea. Ekintza horien artean, nabarmentzekoak dira:

  - Berrikustea, Gipuzkoako Foru Aldundiko departamentuen esperientziatik abiatuta, araudiaren genero eragina ebaluatzeko aurretiazko txostenak egiteko prozedura.

  - Aurrera egitea Gipuzkoako Foru Aldundiaren aurrekontuetan genero ikuspegia txertatzeko lan metodologiaren hobekuntzan.

- Inclusión en el III Plan para la igualdad de mujeres y hombres y dentro del objetivo "avanzando en la incorporación del enfoque de género en los procedimientos de trabajo de la DFG" acciones específicas al respecto. Entre dichas acciones destacan:

  - Revisar, a partir de la experiencia de los departamentos de la DFG, el procedimiento para la elaboración de los informes previos de evaluación de impacto de género de la normativa.

  - Avanzar en la mejora de la metodología de trabajo para la incorporación del enfoque de género en los presupuestos de la DFG.

Hobekuntza prozesu hori, esperientzia pilotu gisa 4 aurrekontu programekin hasi zen, eta beranduago beste 10 programa gehitu ziren. Prozesuak honako helburu ditu:

Ese proceso de mejora, ya se inició como experiencia piloto con 4 programas presupuestarios, a los que posteriormente se unieron otros 10 programas. Los objetivos del proceso son:

- Aurrekontu programen fitxen edukia eta beraiek egiteko moduari buruzko hausnarketa eta azterketa prozesu bat egitea, emakumeen eta gizonen berdintasunean duen eraginari dagokionez.

- Realizar un proceso de reflexión y análisis sobre el contenido y la forma de elaboración de las fichas de los programas presupuestarios, en relación con su incidencia en la igualdad de mujeres y hombres. Con el objetivo de mejorar los

Xedea da horien genero eragina ebaluatzeko txostenak hobetzea.

- Aurrekontu programen fitxen edukiak aldatzea eta hobetzea, genero ikuspegia programa horietan txertatzeari dagokionez, arreta berezia jarriz eta identifikatuz programa bakoitzaren barruan dauden genero desberdintasunei, eta helburuak, ekintzak eta aurrekontuak desberdintasun horien murrizketara egokitzeari.

Ibilbide luzeko prozesua da, entsegu honen bidez gainerako programetara heda daitekeen metodologia finkatu ahal izateko.

Donostia, 2023ko ekainaren 28a

informes de evaluación de impacto de género de las mismas.

- Modificar y mejorar los contenidos de las fichas de los programas presupuestarios en lo referido a la integración de la perspectiva de género en los mismos, prestando especial atención e identificación de las desigualdades de género dentro de cada programa y a la adecuación de objetivos, acciones y presupuestos a la reducción de dichas desigualdades.

Se trata de un proceso de largo recorrido que permita a través de este ensayo fijar una metodología extensible al resto de los programas.

San Sebastián, a 28 de junio de 2023

**Sin/Fir.: José Antonio Lapeira Oyarzabal**
**AZTERLANETAKO ATALBURUA /JEFE SECCIÓN DE ESTUDIOS**